

PRACTICUM Ieko PROGRAMA PEDAGOGIAKO GRADUA

HEFA - UPV/EHU



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

HEZKUNTZA, FILOSOFIA ETA ANTROPOLOGIA FAKULTATEA

2016-2017 IKASTURTEA

Pedagogiako Practicum Ieko tutoreak
Lore Erriondo, Joxi Imaz eta Jon Altuna (Koord.)

AURKIBIDEA

1.- SARRERA	2
2.- PROFILA, EGINKIZUNAK ETA BALIZKO JARDUERA ARLOAK.....	2
3.- I. PRACTICUMEAN GARATU BEHARREKO KONPETENTZIAK.....	3
4.- IKASKETA EMAITZAK	4
5.- I. FASEAREN GARAPEN METODOLOGIKOA.....	4
5.1.-PRESTAKUNTZA EDUKIEI ETA JARDUN PROFESIONALAREKIN DUTEN LOTURARI BURUZKO GOGOETA	
5.2.- JARDUERAK ETA KRONOGRAMA	
6.- II. FASEAREN METODOLOGIA.....	7
6.1.- EGUNEROKOA ETA MINTEGIAK	
6.2.- OROI-TXOSTENA	
7.- EBALUAZIOA	9

1.- SARRERA

Practicuma funtsezko elementua da Pedagogiako Graduko ikasketan planaren barruan. Izan ere, Practicumak aukera ematen du unibertsitateko ikasketak lanbide-jardunera gerturatzeko, testuinguruan kokatutako esperientzia praktikoa eskuratzeko, hezkuntza- edo gizarte-errealitatera gerturatzeko eta errealitate horrekin integratzeko eta gerora ikaslearen lanbidea izango denari behatu, hasiera eman eta egiaztatzeko.

3. mailako Pedagogiako Graduko Practicuma bigarren lauhilabetean garatzen da urtarrilaren azken astetik maiatzaren erdialdera bitarte. Hau da, urtarrilaren 23tik maiatzaren 12ra arte. 6 kredituko lana bi fase ezberdinetan aurrera eramaten dira.

Pedagogiako Graduko I. Practicuma bi Fase nagusitan gauzatuko da:

- I. Fasea: kreditu 1/aurrez aurreko 17 ordu: Fakultatean: urtarrilaren 23tik otsailaren 3a arte zehazteke.
- II. Fasea: 5 kreditu/aurrez aurreko 83 ordu: Praktiketako zentroetan: otsailaren 6tik maiatzaren 12ra arte zehazteke.

2.- PROFILA, EGINKIZUNAK ETA BALIZKO JARDUERA ARLOAK

Pedagogiako graduduna esku-hartze pedagogikoa, prestakuntza, ebaluazioa eta baliabideen eta proiektuen kudeaketa gauzatzeko prestatuta dagoen profesionala eta hezkuntzaren arloko aditua da. Hauxe izango da gradudunaren jardueraren xedea: Giza Eskubideen errespetuan oinarritutako hezkuntza inklusiboa, eleanitza, komunitarioa eta pertsonen bizi osoan zeharreko gizarte-ongizateari begirakoa gauzatzea, erakundeen, gizartearen, kulturaren eta lanaren arloetan.

Horretarako, hezkuntzaren arloko arazoak konpontzeko gizarte-trebetasunak garatu beharko ditu, gizarte-ingurunea errespetatu beharko du, pertsonen arteko harremanen arloan aditua izan beharko du, erabakiak hartzeko gaitasuna eta jarrera arduratsua izan beharko ditu, eta gizarte-zientzien eta giza zientzien arloek berezko dituzten konpetentziak beharko ditu.

Profesionalak garatu beharreko eginkizunen artean honako hauek aurkitzen dira:

- Gizarte eta kultur testuinguru ezberdinen **diagnostikoa** eta hezkuntzaren arloko **esku-hartzea**.

- Antzemandako premiei erantzuteko jarduera pedagogikoak **antolatzea**.
- Zerbitzu, proiektu eta hezkuntza erakundeen **aholkularitza**,
- Hezkuntza-programak **diseinatzea, martxan jartzea eta ebaluatzea**.
- **Hezkuntza edota lanbide orientazioa** prestakuntza eta kultura-baliabideetatik edo baliabide profesionaletatik abiatuta.
- Diziplina anitzeko taldeetan **parte hartzea**, prestakuntza egoerei erantzuteko eta jarraipena egiteko.
- Entitate publiko pribatu edota zentroen **antolakuntza eta kudeaketa**.
- **Prestakuntzarako materialen ekoizpena** hainbat euskarrietan.
- Formazio ibilbide eta programen **diseinu, abiarazte eta ebaluazioa**
- Formatzaile eta hezkuntza eragileen **formazioa**.

Pedagogiako Profesionalaren jarduera arloak honako multzo hauetan sailka daitezke:

- 1.- Hezkuntza arautua
- 2.- Teknologia berrietako hezkuntza
- 3.- Administrazio publiko orokorra eta bereziki hezkuntzaren atala
- 4.- Osasuna
- 5.- Lana eta Gizarte Gaiak
- 6.- Espetxeak
- 7.- Justizia Saila (Epaitegiak)
- 8.- EMAKUNDE Emakumearen Euskal Erakundea
- 9.- Kalitatearen kudeaketa eta aldaketa-prozesuak
- 10.- Antolakuntza eta enpresa
- 11.- Aisialdia eta denbora libre (denbora librearen pedagogia)
- 12.-Kultura eta hizkuntza (kultur eta hizkuntza sormenaren eta transmisioaren kudeaketa pedagogikoa)
- 13.- Adinakoak (pedagogia gerontologiakoa)
- 14.- Elbarriei zuzendutako Zerbitzuak:
- 15.- Erresidentzia eta familia Zerbitzuak

3.- PRACTICUM I-ean GARATU BEHAR DIREN KONPETENTZIAK

1. Esku-hartze pedagogikorako arlo profesionalen, hezkuntza-proiektuen, jarduera-planen eta horiek gauzatzen diren sareen ikuspegi orokorra eraikitzea.
2. Ikasketa-trebetasunak garatzea, praktiketako testuinguruetan txertatzeko.

3. Jardun profesionala analizatuta jakintza eskuratzea, eta jakintza hori tituluko moduluetan eskuratutako ezaguerekin erlazionatzea.
4. Ikaskuntzarekiko jarrera positiboa izatea, hezkuntzako esku-hartzea eta garapen profesionala hobetzen laguntzeko.

4.- IKASKETA EMAITZAK

1. Pedagogia esku-hartzean erabiltzen diren egitasmoen, planen eta sareekiko harremanetan dauden ikasketa edukien azterketa eta ezagutza.
2. Pedagoaren zereginetan giza eskubideetan oinarritutako kode etiko nahiz deontologiaren eraginaz ohartzea eta horrekin bat egitea.
3. Hezkuntza testuinguru desberdinetan giza harremanetarako nahiz komunikaziorako trebetasunak lantzea.
4. Ikasketa testuinguru desberdinen ikerketetatik inferitutakoa era argian bezain arrazoizkoan azalaraztea idatziz nahiz ahoz.
5. Sozio-, hezkuntza- testuinguru desberdinak alderaturik, arlo bakoitzari dagozkion ezaugarriak azalarazteko konpetentzia.
6. Lanbidearen ikasketaren aurrean erantzukizunezko jarrera baikorra arduratsua eta burujabea erakustea.

5.- I. FASEAREN GARAPEN METODOLOGIKOA

5.1.- PRESTAKUNTZA EDUKIEI ETA JARDUN PROFESIONALAREKIN DUTEN LOTURARI BURUZKO GOGOETA

Lehenengo fase hau fakultatean egingo da, zentroetara joan aurretik. Helburua aurretiko prestakuntzaren eduki adierazgarrienak jarduera praktikoekin erlazionatzea izango da, pedagoaren trebetasun profesionaletan sakonduz.

Prozesu metodologikoa hiru gune hauen inguruan egituratuta dago:

1.- Practicum aurkeztea eta kokatzea

Practicumaren ildo nagusiak aurkeztea eta argitzea: egitura, egin beharreko jarduerak eta ikasleek hartu beharreko konpromisoak eta izan beharreko jarrera.

Practicumaren inguruan indarrean dagoen araudia azaldu eta ikasleek bete beharreko eranskinak aurkeztea.

2.- Garatutako Konpetentzia akademikoei buruzko gogoeta

Ikasleek berriro ekingo diote aldez aurreko eduki teoriko-praktikoen gainean egindako lanari, eta irakurketa lasaia egingo dute distantzia pertsonaletik eta aurreko ikasturteetan eskuratutako ikaskuntzetatik abiatuta.

3.-Treibetasun profesionalak, harremanetarako treibetasuna eta lanbide-deontologia

Ikasleek lantegi batean parte hartuko dute, eta bertan, harremanetarako treibetasun profesionalak landuko ditu jarduera praktikolari begira. Horretarako, funtsezkoa da Pedagogiako deontologia-kodea eta etika profesionala errespetatzea.

5.2.- JARDUERAK ETA KRONOGRAMA

SAIOA	AURREZ JARDUERAK	AURREKO	EGUNA	LEKUA
1	Aurkezpen orokorra (bi taldeak batera). Practicuma aurkeztu eta kokatu.		Urtarrilaren 23tik-27ra, (zehazteke)	Ezartzeke (abisatuko da)
2	Praktiketako ikastetxeko instruktore eta ikasleen lanari buruzko hausnarketa.		Urtarrilaren 23tik-27ra, (zehazteke)	Ezartzeke (abisatuko da mintegietan)
3	Practicum Ieko konpetentzien gaineko hausnarketa.		Urtarrilaren 30tik-otsailaren 3a tutorearekin zehazteke	Ezartzeke (abisatuko da mintegietan)
4	Teoria eta hezkuntza praktikari buruzko hausnarketa. Lanaren etika.		Urtarrilaren 30tik-otsailaren 3a tutorearekin zehazteke	Ezartzeke (abisatuko da mintegietan)
5	Praktiketako ikastegian kokatuz. Egunerokoak, zeri kasu egin eta nola jaso.		otsailean tutorearekin zehazteke	Ezartzeke (abisatuko da mintegietan)

Datak eta lekuak kurtsoan zehar zehaztuko dira.

Lehenengo fase honetako Jardueretan egindako lan guztiek ENTREGAGAI bat osatuko dute, eta fasearen bukaeran entregatu beharko da. Hona hemen jardueren nondik-norakoa:

1. JARDUERA: AURKEZPEN OROKORRA. PRACTICUMA AURKEZTU ETA KOKATU

HELBURUA:

VI. Moduluan praktikek duten garrantzia ulertu eta Practicumaren esanahiaz jabetu.

METODOLOGIA:

Practicumeko Tutorearen eskutik, fase honen aurkezpena. Taldeen lana osatu eta saio, ekintza eta mintegien egutegia zehaztu.

2.JARDUERA: PRAKTIKETAKO IKASTETXEKO INSTRUKTORE ETA IKASLEEN LANARI BURUZKO HAUSNARKETA.

HELBURUA

Praktiketako fase honetan Partaideen zereginaren garrantzia ezagutu.

METODOLOGIA:

Fakultateko Web orrian zentroetako instruktorearen eta ikaslearen eskubideak eta beharrak bilatu. Galderak arrazoituz erantzun :

1. Zer topatzeak harritu zaituzte?
2. Egin beharren artean zein da zailena?
3. Zer dago soberan eta zer botatzen duzue faltan?
4. Beharrezkoa litzateke honelako informazioa Fakultateko web orrian agertzea?

Talde-eztabaida egingo da.

3. JARDUERA: KONPETENTZIEN INGURUKO HAUSNARKETA.

HELBURUA:

Konpetentzien lorpenari buruz kontzientzia izatea.

METODOLOGIA

Taldeka, Iritzien partekatzea.

Talde bakoitzak aurretik lortutakoei eta Practicum I-eko konpetentziei buruzko hausnarketa egingo du, galdera hauek gidaritzat harturik:

- Nolakoa da Konpetentzien Garapena?

- Practicumeko konpetentziekiko orain non zaudete ?
- Nola lortu ditzakegu Practicum-eko konpetentziak? Zer egin dezakezue?

4. JARDUERA: HEZKUNTZA PRAKTIKARI BURUZKO HAUSNARKETA.

HELBURUA:

Hezkuntza Praktika eta Teoriaren arteko erlazioak aztertu.

METODOLOGIA

Artikulu zientifikoetan oinarrituz, gaia aztertu eta ideia nagusien inguruko hausnarketa kolektiboa egingo da.

5. JARDUERA: PRAKTIKETAKO ZENTRORA.

HELBURUA

Praktiketako aurreikuspena egitea

METODOLOGIA

Banakako lana, ondorengo galderetan oinarrituta:

- Nola ikusten duzu zure lehenengo momentua, izango duzun harrera?
- Zentroko instruktorea izango bazina, zer-nolako harrera egingo zenuke?
- Ze espero duzu zure aurtengo praktiketatik? Zeintzuk dira onartuko zenituzkeen gutxieneak?

6.- II. FASEAREN METODOLOGIA

6.1.- EGUNEROKOA ETA MINTEGIAK

Practicum-ean zehar gogoeta bultzatzeko eta Azken Txostena errazago egin ahal izateko, ikasleak oharrak hartuko ditu Eguneroko batean. Egunerokoa Txostenean sartu beharko da, eranskin gisa .

EGUNEROKOaren ezaugarriak:

- Esperientziaren historia finkatzeko eta gogoeta-prozesuak errazteko, praktiken egunerokoa idatziko ikasleak, bertan parte hartu dueneko egoera eta testuinguruak deskribatuz.

- Bereizi behar dira: behatzen dena eta zuzeneko esku-hartzea, ekintzei buruz egiten den deskribapena eta norberaren komentarioak direnak, hausnarketak edota iritziak behatutakoaren gainean edo zuen esku-hartzearen gainean. Norberaren sentimenduak eta emozioak, prozesuan oso garrantzitsuak izan arren, errealitate-deskribapenetatik bereizi behar dira.
- Saiatu behar gara egunerokoa idazten egoerak gertatu ahala. Denbora pasatzen uzten bada idazten dena filtratuagoa izango da, eta xehetasunak eta erreferentziak galtzeko arriskua handiagoa da.

MINTEGIAK

Elkarlanerako guneak izan dira mintegiak, bertan egingo direlarik zentroetan kausitutakoaren inguruko gogoetak, baita azken txostena osatzen dute puntuen ingurukoak ere.

6.2.- OROITXOSTENA (Gehienez 15 orri)

Praktikei amaiera emateko, ikasleek Practicumeko oroi-txostena egingo dute. Bertan, zer egoeratan eta testuingurutan jardun diren azalduko eta analizatuko dute. Txosten horretan ondorengo puntuak jasoko dira:

1- Praktiketako zentroko testuinguruaren identifikazioa eta analisia

- Testuinguru orokorra: identifikazio datuak, kokalekua, zentro mota, zein erakunderen menpe dagoen, ekonomia-erregimena eta zentroaren jarduera arloa erregulatzen duen araudia.
- Zentroa kokatuta dagoen esparru soziokulturala. Zer herritar motari zuzenduta dagoen, eskaintzen eta eskatzen diren zerbitzuak, proiektuak eta programak, ezaugarriak, etab.
- Zentroaren antolakuntza testuingurua. Zuzendaritza eta kudeaketa organoa. Lantaldea: profesionalak, funtzioak, lan metodologia. Garatzen diren sareak.

2- Praktika prozesua

- Pedagogoen profil profesionala: heziketa akademiko-zientifikoari buruzko gogoeta orokorra, trebetasunak eta jarrera pertsonalak.

- Zentroaren beharren identifikatzea eta testuinguru jakin batean txertatzea profil profesionalari dagozkion konpetentziak erantsiz.
- Praktika programaren diseinua eta erantzukizun maila. Banakako praktika plana: programaren helburuak, dedikazioa, bere gain hartu dituen eginkizunak. Metodologia: jarduera programa, estrategiak eta baliabideak.

3- Burututako lanaren inguruko analisia eta gogoeta

- Heziketa ibilbidearen analisia. Ikaskuntza adierazleak. Gainditu behar izan dituen zailtasunak, eskuratutako ikaskuntzak eta hobetzeko iradokizunak. Lanbidearen auto-pertzepzioa. Ikasleak lanbide proiektuari egin dizkion ekarpenak. Praktika proiektuko konpromisoaren inguruko gogoeta. Practicumaren alderdi positiboak eta hobetzekoak.

4- Praktiken inguruko balorazioa eta bizipen pertsonala

- Autoebaluazioa.
- Practicum-eko I. Fasearen Balorazioa.
- Fakultatean egindako Practicumeko II. Fasearen Balorazioa (mintegietakoa).
- Zentroan egindako Practicumeko II. Fasearen Balorazioa (zentroetako praktikak).

Ohar garrantzitsua: Behaketen Egunerokoa, Practicum prozesuan zehar hausnarketa gisa egingina eta azken oroi-txostena egiteko erabiliko dena, eranskin gisa txertatuko beharko da amaierako Oroi-Txostenean,

7.- EBALUAZIOA

Practicumaren ebaluazioa egiterakoan Fakultatean egindako lana zein Praktiketako Zentroan egindako lana izango dira kontuan. Bi atal horiek ondoko baloreak izango dituzte:

1.- Praktiketako Zentroan egindako lana bertako inktoreak ebaluatuko du eta bukaerako notaren %50 izango da.

2.- Fakultatean egindako lanari dagokionez, bukaerako notaren %50, atal desberdin hauetan banatua egongo da:

- % 20 DILAN lanarena.
- % 10 jardueretako lanak, mintegietara etortzea eta jarrera.
- % 20 Azken Oroi-txostena.